



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2014ko urtarrilaren 17a

9. ZK.

A U R K I B I D E A

E S A I L A:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak bere babesa eta elkartasuna adierazten die Esako lur-lerradurek ukitutako Lasaitasuna urbanizazioko jabeei eta egoiliarrei, eta bere egiten du babesa jasotzeko egin duten eskaera. Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (3. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da urgentziaz gara dezan berariazko programa bat, nekazaritzan eta abeltzaintzan belaunaldien arteko erreleboa errazteko. Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (4. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Ilundaingo Adingabeen Zentroaren kudeaketa zuzenean har dezan. Bildu-Nafarroa eta Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu dute (5. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da amaiera eman diezaion gure erkidegoan zerbitzu publikoak jasaten ari diren okertzeari. Socialistas de Navarra, Bildu-Nafarroa, Aralar-Nafarroa Bai eta Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak aurkeztu dute (6. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak errespeturik handiena adierazten baitie jurisdikzio-organoek zuzenbide estatuaren esparruan hartutako erabakiei. Eledunen Batzarrak onetsia (7. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak arbuiatzen baitu ETA banda terroristako presoen alde iragan larunbatean Bilbon egindako manifestazioa, eta bere elkartasuna, miresmena eta errespetua adierazten baitizkie terrorismoaren biktimei. Eledunen Batzarrak onetsia (7. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak adierazten baitu FMko irrati-lizentziak esleitzearen inguruko epai eta ebazpen judizial guztiei men egin eta haiek oso-osorik eta berehala bete beharra dagoela. Eledunen Batzarrak onetsia (8. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak berariaz agerrarazten baitu ETAREN biktimak baldintzarik gabe babesten dituela. Eledunen Batzarrak onetsia (8. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, familia ugarietzako eta seme-alabak zaintzeko eszedentziarako laguntzarako deialdietan baimendutako gastua gutxitzeari buruzkoa, María Victoria Arraiza Zorzano andreak egina (9. or.).
- Galdera, tributuen % 0,7aren esleipenerako deialdiei buruzkoa, María Victoria Arraiza Zorzano andreak egina (10. or.).
- Galdera, Guelbenzu kiroldegiaren itxierari buruzkoa, María Victoria Arraiza Zorzano andreak egina (10. or.).
- Galdera, Nafarroako eremu ez euskalduneko udalen eta kontzejuen izendapen ofizialei buruzkoa, Amaya Zarranz Errea andreak egina (11. or.).
- Galdera, Guardia Zibilak D ereduaren inguruan prestatutako txostena dela-eta Nafarroako Gobernuak bere esku duen informazioari buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (12. or.).

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak bere babes eta elkartasuna adierazten die Lasaitasuna urbanizazioko jabeei eta egoiliarrei, Esako lur-lerradurek ukitu dituzten horiei, eta bere egiten du babes jasotzeko egin duten eskaera.

ARALAR-NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko urtarrilaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere babes eta elkartasuna adierazten baitie Esako lur-lerradurek ukitutako Lasaitasuna urbanizazioko jabeei eta egoiliarrei, eta bere egiten baitu babes jasotzeko egin duten eskaera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2014ko urtarrilaren 13an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeko eledun Patxi Zabaleta Zabaletak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Urtebete baino gehiago igaro da Esako mazelan lerradura eta haustura arazoak hasi zirenetik,

eta oraindik ere ez ez zaie erantzun, laguntza eta konponbide egokirik eman Lasaitasuna urbanizazioko etxebizitzeei, zeinek kalte larriak jaso baitzituzten eta nahitaez hustu behar izan baitziren.

Aitzitik, urte honetan zehar arazoa larriagotu egin da, eta lerradura gehiago gertatzen ari dira, kalte berriak eta irregulartasunak sortuz. Gaur, gastatutako 25 milioiak gorabehera, mazelan ez dago segurtasuna edukitzeko itxaropenik edo etorkizunean bertan bizitzeko aukerarik.

Babesgabetasun egoerak eragin du ukitutako bizilagunek Parlamentu honen babes eskatzea egin den azken agerraldian.

Hori dela-eta, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak bere babes eta elkartasuna adierazi nahi dizkie Esako mazelako lerradurek ukitutako Lasaitasuna urbanizazioko jabe eta bizilagunei.

2. Nafarroako Parlamentuak bere egiten du ukitutako pertsonen Parlamentu honetako batzordean egindako babes-eskaera, eta lan-talde bat edo batzorde berezi bat eratzea erabaki du, Ebroko Konfederazio Hidrografikoarekin, Nafarroako Gobernuarekin eta jabeekin batera lan egin dezan, sortutako egoera konpontzeko.

Iruñean, 2014ko urtarrilaren 9an

Eleduna: Patxi Zabaleta Zabaleta

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da programa bat presazko izaerarekin gara dezan, nekazaritzan eta abeltzaintzan belaunaldien arteko erreleboa errazteko.

ARALAR-NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko urtarrilaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita urgentziaz gara dezan berriazko programa bat, nekazaritzan eta abeltzaintzan belaunaldien arteko erreleboa errazteko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2014ko urtarrilaren 13an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeko eledun Patxi Zabaleta Zabaletak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioak

Lehen sektorea Nafarroako oinarri garrantzitsu bat da gizarte-, ekonomia- nahiz lurralde-oreka mantenduko bada. Nekazaritza eta abeltzaintza, gizarte garatuentzat interesa galtzen ari den sektore bat izateaz kontrara, gero eta garrantzi han-

diagoa ari da hartzen, etorkizunari begira sektore funtsezko eta lehenetsizat hartua izateraino.

Nafarroa beti izan da lehen sektore indartsua daukan gizarte bat, lurraldean sustraitua eta errentagarria ikuspuntu sozial eta ekonomikotik begiratuta, eta halaxe jarraitu behar du etorkizunean.

Sektore horretan lan egiten duten milaka pertsonen egoera zailean garatzen dute jarduera hori, arazo handiak dituzte bateragarri egiteko lan hori eta beharrezkoak diren atsedenaldiak eta familia-bizitza, bai eta ustekabeko gorabehereri aurre egiteko ere; esaterako, gaixotasunei edo istripuei.

Hori dela-eta, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

1. Nafarroako Parlamentuaren ustez, komenigarria eta beharrezkoa da, gizarte- nahiz ekonomia-garapenerako eta lurralde-orekarako, lehen sektorean enplegua mantentzera bideratutako politika berriazkoak egotea, bai eta enplegu horren kalitatea hobetzera bideratutakoak ere.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du urgentziaz gara dezan berriazko programa bat, abeltzaintzan eta nekazaritzan belaunaldi-erreleboa erraztera bideratua, bai eta lan-baldintzak erraztera ustiategi txikietan, lan-ordezkapenak egin ahal izateko bidea emanaz, gertakariren bat, osasun-baja, oporrak eta abar gertatzen direnean.

Iruñean, 2014ko urtarrilaren 9an

Eleduna: Patxi Zabaleta Zabaleta

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Ilundaingo Adingabeen Zentroaren kudeaketa zuzenean har dezan.

BILDU-NAFARROA ETA ARALAR-NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTU DUTE

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko urtarrilaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bildu-Nafarroa eta Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeek aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita Ilundaingo Adingabeen Zentroaren kudeaketa zuzenean har dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2014ko urtarrilaren 13an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Behean sinatzen duten parlamentu-taldeek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena:

Neurri Judizialak Betetzeko Adingabeentzako Ilundaingo Zentro berria, zeina Aranguren Ibarrean baitago, 2012ko ekainean inauguratu zen. Gizarte Politiketako Batzordeak 2012ko maiatzean egindako bisitan egiaztatu ahal izan genuenez, ekipamendu moderno dago hornituta. 14tik 18 urtera bitarteko 20 gazterentzako lekua du gehieenez ere. Gazteak neurri judizialak barnetegi araubidean betetzeko daude zentroan sartuta, eta monitore espezializatuen ekipo handi bat arduratzen da gazteez. Gisa horretako ezaugarriekiko Nafarroako Gobernuaren mendeko zentro bakarra da.

Azpiegitura berri honek herri horretan bertan lehenago zegoen izen bereko zentroaren lekua hartu zuen. Haritz Berri Fundazioak kudeatu zuen lehengo zentro hori. 2011ko azaroan, Nafarroako Gobernuak erabaki zuen lehiaketa bidez esleitzea zentro horren kudeaketa, eta 2012rako lizitazio-prezioa milioi bat eta zortziehun mila eurokoa izan zen. Kontratua urte anitzekoa zen, eta lau urtera bitarte luza zitekeen zenbatekoa. Halere, geroago

prestatutako baldintza-orrian milioi bat bostehun eta laurogeita lau mila euroko gehieneko zenbatekoa ezarri zen; alegia, hasiera batean ezarritakoa eta aurreko kudeaketakoa baino nabarmen txikiagoa. Harrigarria da azpiegitura berri bat, instalazio hobeak dituen, erabiltzaile gehiago har ditzakeena eta, hortaz, kasu egiteko giza baliabide gehiago behar dituen, lizitazio-prezio txikiagoan ateratzea lehiaketara.

Iragan urrian, Haritz Berri Fundazioak –lehiaketa-hartzailea eta, horrenbestez, zentroaren kudeatzailea– uko egin zion zentroa kudeatzen jarraitzeari, esleitutako prezioan ezinezkoa zelako gastuei aurre egitea. Lehiaketa berria egin arte, kudeaketaz arduratzen jarraituko du behin-behinekoz, baina oraingoz ez dakite noiz egingen den lizitazioa eta Nafarroako Gobernuak lehengo zenbatekoak mantenduko ote dituen –nabarmenki eskasak dira–, ala gastu errealerara egokituko ote dituen.

Egungo egoera ziurgabetasun handikoa da; izan ere, enpresa esleipen-hartzaileak etorkizunean inork ere itzuliko ez dion zorra metatzen jarraitzen du. Zentroaren kudeaketak bizi duen ezegonkortasun-egoera eta etorkizun zalantzatsua ikusita, behean sinatzen dugun parlamentu-taldek ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du Ilundaingo Adingabeen Zentroaren kudeaketaz zuzenean ardura dadin, hartara ekidinen baita zentroko gazte horiek zerbitzu hori gabe gelditzea edo horiei tratu eskasa ematea behar adina baliabide ekonomiko ez egoteagatik, edo etorkizunean gerta litezkeen beste ezbehar batzuk.

2. Baldin eta Nafarroako Gobernuak zentroaren zeharkako kudeaketaren aldeko hautua egiten badu, Parlamentu honek eskatzen dio zentroa baldintzarik onenetan kudeatu ahal izateko gastu guztiei aurre egin ahal izateko adinako zenbateko bat proposa dadin kudeaketa horren lizitaziorako baldintza-orrian. Zenbateko hori ezin izan da izan, inolaz ere, urtean milioi bat eta zortziehun mila eurokoa baino txikiagoa.

Iruñean, 2014ko urtarrilaren 9an

Foru parlamentariak: Bikendi Barea Aiestaran eta Asun Fernández de Garaialde y Lazkano

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da amaiera eman diezaion gure erkidegoan zerbitzu publikoak jasaten ari diren okertzeari.

SOCIALISTAS DE NAVARRA, BILDU-NAFARROA, ARALAR-NAFARROA BAI ETA IZQUIERDA-EZKERRA PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTU DUTE

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko urtarrilaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas de Navarra, Bildu-Nafarroa, Aralar-Nafarroa Bai eta Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeen aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita amaiera eman diezaion gure erkidegoan zerbitzu publikoak jasaten ari diren okertzeari.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2014ko urtarrilaren 13an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Behean sinatzen duten parlamentu-taldeen, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena

2008ko udan krisia hasi zenetik, zenbait ekonomia-estamentuk murrizketa- eta austeritate-politikak inposatu dizkiete gobernu ezberdinei, eta horien emaitzak ankerrak jada ikusten ari dira populazioaren sektore askotan.

Esaten zaigunaren kontra, neurri ekonomiko horiek modu kezkarrian handitzen ari dira gizarte-haustura, horrenbestez gizarte txiroago, bidegabeago eta desorekatuago bat taxutuz.

Botere ekonomiko horiek zerbitzu publikoen aurkako mezuak igortzen ari zaizkigu, zorpetzearen eta egoera ekonomikoaren errudunak zerbitzu horiek izanen balira bezala. Horrenbestez, ikuspuntu horretatik, krisiaren konponbidea eta ondo-

rengo susperraldia soilik etor litezke zerbitzu publikoen arloan egindako murrizketen eskutik.

Gastu publikoa murrizteko politika horiek efektu bikoitza dute: alde batetik, bizi-kalitatearen galera dakarkiete herritar gehienei, batez ere gure gizartean egoera larriagoan daudenei; bestetik, eragina dute langile publikoen lan-baldintzetan.

Nafarroan, UPNren Gobernuak orpoz orpo jarraitzen ditu, arlo publiko guztian, austeritate politika horiek, ekonomia dinamizatzeko taxuzko politikarik ezarri gabe; hortaz, herritarren gehien-go pobretzen ari dela ikusten ari gara.

Horretarako, Nafarroako Gobernua sektore publikoko langileen gaineko inposizio-politikak baliatzen ari da, lan-baldintzak nabarmen aldatzen dituzten eta negoziazioaren bidez lortutako oreka zapuzten duten foru dekretuak eta foru aginduak aplikatuz.

Hori dela-eta, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du amaiera eman diezaion gure erkidegoan zerbitzu publikoak jasaten ari diren okertzeari.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du langile publikoen ordezkarietara negoziatioari berriro ekin diezaion esparru guztietan.

3. Nafarroako Parlamentuak errefusatu egiten du sektore publikoko langileei lan- eta lansari-baldintza berriak inposatzea foru dekretu eta foru agindu bidez.

4. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du sektore publikoko langileen lan- edo lansari-baldintzen aldaketa oro egin dadin Funtzio Publikoko Mahai Orokorrean alderdi sozialak duen ordezkartzaren erdiaren babesarekin gutxienez ere.

Iruñean, 2014ko urtarrilaren 3an

Foru parlamentariak: Juan José Lizarbe Bartzán, Víctor Rubio Martínez, Txentxo Jiménez Hervás eta Txema Mauleón Echeverría

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak errespeturik handiena adierazten baitie jurisdikzio-organoek zuzenbide estatuaren esparruan hartutako erabakiei.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2014ko urtarrilaren 13an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak, terrorismoaren aurkako operazio baten esparruan Auzitegi Nazionalaren aginduz egindako atxiloketen ostean, bere errespeturik handiena adierazten die jurisdikzio-organoek zuzenbide estatuaren esparruan hartutako erabakiei.

2. Nafarroako Parlamentuak adierazten du bere interesekoa dela Espainiako Gobernuak jardun dezan esparru juridikoak ematen dizkion tresna guztiekin, ETA desagertzea lortzeko eta gizartean bizikidetasun giro bat lortzeko, errespetuan,

aniztasunean eta herritarren askatasunetan oinarritua.

3. Nafarroako Parlamentuak adierazten du bere interesekoa dela herritar guztien giza eskubi-deen eta eskubide zibil eta politikoen errespetua mantentzea eta, ahal bada, hobetzea.

4. Nafarroako Parlamentuak adierazten du Nafarroako gizarte osoarekin batera lan egiteko borondatea duela bakea eta bizikidetasuna lortzeko, zeinak oinarritu behar baitira gertatutakoaren kontra egiazkoan, biktimen errekonozimenduan, justizian eta egindako kaltearen ordainean.”

Iruñean, 2014ko urtarrilaren 13an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak arbuiatzen baitu ETA banda terroristako presoen alde iragan larunbatean Bilbon egindako manifestazioa, eta bere elkartasuna, miresmena eta errespetua adierazten baitizkie terrorismoaren biktimei.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2014ko urtarrilaren 13an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. ETA banda terroristako presoek alde iragan larunbatean Bilbon egindako manifestazioa arbuiatzea.

2. Elkartasuna, miresmena eta errespetua adieraztea terrorismoaren biktimei.”

Iruñean, 2014ko urtarrilaren 13an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak adierazten baitu FMko irrati-lizentziak esleitzearen inguruko epai eta ebazpen judizial guztiei men egin eta haiek oso-osorik eta berehala bete beharra dagoela.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2014ko urtarrilaren 13an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak adierazten du FMko irrati-lizentziak esleitzearen inguruko epai eta ebazpen judizial guztiei men egin eta haiek oso-osorik eta berehala bete beharra dagoela.

2. Nafarroako Parlamentuak adierazten du premiazkoa dela elkarrizketaren bidez konpontzea orain arte auzitegietan maiz aurrez aurre egondako aldean arteko desadostasunak”

Iruñean, 2014ko urtarrilaren 13an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak berariaz agerrarazten baitu ETAREN biktimak baldintzarik gabe babesten dituela.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2014ko urtarrilaren 13an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“Adierazpen instituzional honen bidez, Nafarroako Parlamentuak berariaz agerrarazten du, berriz ere, ETAREN biktimak baldintzarik gabe babesten

dituela, kondenatuek beren zigorrak betetzea deblauki itxaro du, eta ETA banda terrorista desagertu dadin desio duela adierazten du.”

Iruñean, 2014ko urtarrilaren 13an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

F saila:
GALDERAK

Galdera, familia ugarientzako eta seme-alabak zaintzeko eszedentziarako laguntzarako deialdietan baimendutako gastua gutxitzeari buruzkoa.

MARÍA VICTORIA ARRAIZA ZORZANO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko urtarrilaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Victoria Arraiza Zorzano andreak aurkeztutako galdera, familia ugarientzako eta seme-alabak zaintzeko eszedentziarako laguntzarako deialdietan baimendutako gastua gutxitzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2014ko urtarrilaren 13an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari María Victoria Arraiza andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren

babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Osoko Bilkuran ahoz erantzuteko:

Urtarrilaren 3an, ostirala baitzen, bi foru agindu argitaratu ziren Nafarroako Aldizkari Ofizialean, familia ugarientzako eta adingabeko seme-alabak zaintzeko eszedentziarako laguntza ekonomikoak arautzen dituzten deialdietan baimendutako gastua gutxitzen dutenak.

Galderaren testua:

- Nafarroako Gobernuak zer familia-politika egiteko asmoa du, baldin eta krisi garai honetan, zeinetan familia azaltzen baita herritar askoren zailtasun erraldoienaurreko babes-sare handi gisa, familiaren babesa murrizten bada?

- Zer aurreikuspen dago aurtengo deialdietarako?

Iruñean, 2014ko urtarrilaren 7an

Foru parlamentaria: María Victoria Arraiza Zorzano

Galdera, tributuen % 0,7aren esleipenerako deialdiei buruzkoa.

MARÍA VICTORIA ARRAIZA ZORZANO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko urtarrilaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Victoria Arraiza Zorzano andreak aurkeztutako galdera, tributuen % 0,7aren esleipenerako deialdiei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2014ko urtarrilaren 13an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari María Victoria Arraiza andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren

babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Osoko Bilkuran ahoz erantzuteko:

Galdera hau egin den egunean ebatzi gabe daude tributuen ehuneko 0,7aren esleipenerako hainbat deialdi, 2011ko errenta aitortpenaren kanpainari dagozkionak.

Egia da, halaber, egin gabe daudela 2013 urteari dagozkion deialdiak, nahiz eta Tributuen ehuneko 0,7aren esleipena arautzen duen ekainaren 5eko 7/2009 Foru Legea aldatzen duen uztailaren 2ko 26/2013 Foru Legearen aldaketak exijitzen zuen ezen deialdiek abian egon behar zutela kanpaina bukatu eta hiru hilabeteren buruan.

Galderaren testua:

- Nafarroako Gobernuak zer aurreikuspen darabil auzi horri dagokionez?

Iruñean, 2014ko urtarrilaren 7an

Foru parlamentaria: María Victoria Arraiza Zorzano

Galdera, Guelbenzu kiroldegiaren itxierari buruzkoa.

MARÍA VICTORIA ARRAIZA ZORZANO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko urtarrilaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Victoria Arraiza Zorzano andreak aurkeztutako galdera, Guelbenzu kiroldegiaren itxierari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2014ko urtarrilaren 13an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari María Victoria Arraiza andreak,

Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Osoko Bilkuran ahoz erantzuteko:

Egunotan jakin da Guelbenzu kiroldegiak ezin izan dituela aterak ireki, halako moduan non kalte handia eragin baitzaie erabiltzaileei, oraindik konpondu gabe dagoena.

Galderaren testua:

- Zer arrazoi dago Guelbenzu kiroldegiaren itxieraren oinarrian?

- Zergatik ez da prestutasun handiagorekin –edo, garaiz– kudeatu administrazio prozedura, kirol federazioei eta erabiltzaileei eragiten ari zaizkien eragozpenak ekiditeko?

Iruñean, 2014ko urtarrilaren 7an

Foru parlamentaria: María Victoria Arraiza Zorzano

Galdera, Nafarroako eremu ez euskalduneko udalen eta kontzejuen izendapen ofizialei buruzkoa.

AMAYA ZARRANZ ERREA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko urtarrilaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Amaya Zarranz Errea andreak aurkeztutako galdera, Nafarroako eremu ez euskalduneko udalen eta kontzejuen izendapen ofizialei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2014ko urtarrilaren 13an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko foru parlamentari Amaya Zarranz Errea andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Nafarroako eremu ez euskalduneko udalen izendapen ofizialen zerrenda. Kontzejuen izendapen ofizialena ere eskatzen dut, udalerrri konposatu kasuan.

Iruñean, 2014ko urtarrilaren 7an

Foru parlamentaria: Amaya Zarranz Errea

Galdera, Guardia Zibilak D ereduaren inguruan prestatutako txostena dela-eta Nafarroako Gobernuak bere esku duen informazioari buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko urtarrilaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, Guardia Zibilak D ereduaren inguruan prestatutako txostena dela-eta Nafarroako Gobernuak bere esku duen informazioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2014ko urtarrilaren 13an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak uko egin dionez Guardia Zibilak D ereduari buruz egindako txostena parlamentari honi igortzeari, hauxe jakin nahi dut:

- Nafarroako Gobernuak zer dokumentazio dauka, zeinari jarraikiz lehen aipatu txosten hori eman zion Estatuko administrazioak eragozten baitu foru parlamentarien esku jarri ahal izatea? Halakorik badago, dokumentazio hori igortzea eskatzen dut.

Iruñean, 2014ko urtarrilaren 8an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro